



HELDUEN HEZKUNTZA

Tomas Elorza

Zer da EPA-Helduen Hezkuntza?

Izenak dioen bezala, helduei zuzenduriko edozein motako hezkuntza, formakuntza edo birziklatze programa da: ikasturte, ikastaro... Baina, badirudi, EPA aipatu orduko, Graduatua ateratzeko gure artean zabaldu diren zentroak etortzen zaizkigula burura, zentzu zabala baztertuta.

Baina, nire asmoa "EPA-Helduen Hezkuntza"ren izenean gure inguruko herri gehienetan ireki diren zentroz idaztea da, zer eginkizun betetzen duten edota bete beharko luketen azaltzea.

Azken hamar urteotan, Hego Euskal Herriko herri handi xamarretatik gutxi geldituko dira zentrorik gabe. Lantxo honetan hiru arlo izango ditut kontuan: legearen aldetik duen izaera, errealitatean oinarritutako hainbat hausnarketa eta Hernaniko EPA-Helduen Hezkuntzaren historia labur bat.

Legeari begiratutxo bat ematen badiogu, 1998-06-18ko EHAAn aurkituko dugu luze zabal. Laburbilduz, hona hemen zenbait puntu:

A. Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren barruan sartzen da. Ematen dituen tituluak, guztiz ofizialak dira.

B. Hiru Fasetan dago antolatuta:

- 1.-** Lehen Fasea: ikasketa-maila apalena duten ikasleei zuzendua (alfabetatze maila, irakurle berriak...); oinarritzko alfabetzea, zenbakiak...
- 2.-** Bigarren Fasea: bizitzaren eremu guztietan parte hartzen lagunduko duten ezagutza eta trebetasunak finkatu, eta hezkuntza eta prestakuntza maila garaia goetara iristen lagundu.
- 3.-** Hirugarren Fasea: Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzera bideratua.



Argazkia: Alberto Elozegi

C. Helburu orokorrak:

- 1.- Formakuntza instrumentala: oinarriko prestakuntza lortu eta eguneratu. Eta Hezkuntza sistemaren maila guztietara heltzeko bidea erraztu.
- 2.- Formakuntza soziokulturala: gizarte, kultura, politika eta ekonomiaren bizitzan parte hartzeko ahalmena indartu.
- 3.- Lanerako formakuntza: lanbide-prestakuntza hobetzea edo beste lanbide batzuetara iristeko prestakuntza lortzea.

D. Euskara eta euskal kultura. Legearen arabera ikasleak euskal kulturaren integratzea bultzatuko da, euskal kultura eta euskara ezagutzuz.

Hona, bada, E.P.A.-Helduen Hezkuntza arautzen duen legearen atal batzuk. Baina, zertan gauzatzen da hori guztia? Betetzen al dira emandako arauak?

Atzetik hasita, euskararen auzian utzikeria handia egon da, eta dago, agintarien aldetik, ez baitute araudia betetzeko borondate askorik erakutsi, eta sarritan, irakasleek agintariek baino arreta handiagoa jarri dute horretan. Ikasleen aldetik, aspaldi egindako inkesta baten arabera, jarrera positiboa nabari da. Eta ikasleen jatorrizko hizkuntzari dagokionez, gehienek hizkuntza gaztelania da, eta ikasketak egiteko orduan, alfabetatu

gabeko euskaldun zaharrek ere nahiago izaten dute gaztelaniaz euskaraz baino. Hori guztia kontuan izanik ere, euskarari ematen zaion tratamendua eskasa da.

Hiru helburu orokorreki dagokionez, ez direla modu berean betetzen esango nuke, hobekien betetzen dena formakuntza instrumentala delarik: eskolako ohiko ikasgaiak, hain zuzen. Hala ere, ikasleak pertsona helduak izateak hainbat berezitasun dakartza berarekin: ordutegia (astean 10-12-15 ordu, fasearen arabera), ikasteko ahalmena, lehendik duten formakuntza, eskolak edota bizitzak eman dien kultura, norberak bere eskolaldia jartzen dizkion helburuak (ikastea, lagunarteko atsegin bat aurkitzea, lehen izan ez duen aukera aprobetxatzea nahiz eta titulu gogorik ez izan...).

Dena den, askorentzat beste inon ezin aurki dezaketen aukera paregabea da hainbat arlotan: Eskolako Ziurtagiri, Eskola Graduatua (lehen) eta Bigarren Hezkuntzako Graduatua (orain); askok lortu duten Klinika Laguntzaile titulurako prestakuntza; 25 urtetik goragokoentzat Unibertsitaterako Sarrerarako prestakuntza; euskararen eta euskaraz, ingeles eta frantses hizkuntzetan emandako lehen urratsak... Askorentzat titulu garrantzitsua eta beharrezkoa den bezala, beste askorentzat garrantzitsuak dira jakintza eta kulturako hainbat arlotan ematen dituzten pausotxoak.

Bigarren eta hirugarren helburuen arloan ere lan asko eta asko egiten da, nahiz eta curriculumetan ez dauden hain argi zehaztuta. Adibidez, lanerako formakuntzan



Argazkia: Alberto Eloseggi

eragina izan behar da, baina garbi dago EPA-HHko zentroek ez dutela Lanbide Heziketako zentroen papera ordezkatu behar, eta ez dutela horiek duten adinako azpiegiturarik ere. Hala ere, langileek beren prestakuntzan eta promozioan behar dituzten oinarrizko ezaguerak ematea ere lanerako formakuntza dela ulertu behar da. Bestalde, arlo horri begira Klinika Laguntzaile titulurako prestakuntza eta Informatikako ikastaroak antolatu dira, eta arrakasta handia izan dute.

Dagoeneko milaka dira Hego Euskal Herriko Helduen Hezkuntzako zentroetatik pasa diren pertsonak. Titulu bila, nahiz irakurtzen eta idazten ikastera, nahiz kultura maila pixka bat jasotzera etorri diren pertsona heldu askok oroitzapen onak gordeko ditu EPA-Helduen Hezkuntzako egonaldiaz. Mundu txiki bat da EPA-HH: jatorri askotariko jendea, lan egitera, lagun bila, hizkuntzak ikastera, bere bizitzari lehen izan ez duten aukera bat ematera datorren jende gaztea eta ez hain gaztea...



Argazkia: Jesusmari Gomez

LA HISTORIA DE EPA-HH DE HERNANI

Rosa Lertxundi

EPA-HH de Hernani se abrió en el año 1985. El primer año estuvo ubicada en un local cerca de la capilla "La Milagrosa"; de allí pasó a los bajos de la calle Larramendi, donde estuvo durante 14 años. Aunque parezca mentira, este emplazamiento era provisional, ya que oficialmente, el lugar que el Ayuntamiento destinó para EPA-HH era la villa conocida como "Villa Manolita". Pero esta casa, siempre en espera de su rehabilitación, se cansó y se cayó. Así, en vista de que se necesitaba un lugar definitivo, y después de prometérsenos el Parador San Antonio, hubo cambio de opinión, y, sin tener en cuenta la opinión profesional del profesorado, se trasladó a las escuelas de Antziola, donde sigue.

El centro de enseñanza se puso en marcha con tres profesoras. Hoy día es centro comarcal, es decir que además de a las necesidades de Hernani, atiende a los pueblos de Astigarraga, Andoain y Urnieta. La necesidad de una educación básica adecuada es más necesaria cada día, contra la opinión de la mayoría, porque la educación básica es clave para entender las nuevas tecnologías, poder reciclarse, adquirir nuevos conocimientos... No hay que olvidar que si hasta ahora, el 60% de la población no tenía cursada la educación básica, con la nueva titulación del Graduado en Enseñanza Secundaria (ESO-DBH), ese porcentaje ha subido.

En todos estos años, ha pasado mucha gente por las aulas de este centro educativo, como media unas 233 personas por curso. Unas, para llenar el tiempo libre estudiando; otras, movidas

por el gusanillo de saber más; otras, en busca de la necesaria educación o del título. Este curso la mayoría son mujeres, un 78%, de edades muy diversas: en los niveles más bajos, la media es de 62 años, y en los más altos, de 39. En muchos casos se les ha hecho muy difícil acercarse a la escuela por vergüenza, por miedo, por el qué dirán ..., cuentan anécdotas curiosas. Una cosa está clara: que tiene mucho mérito la persona que, sin obligación alguna, comienza y sigue en la escuela.

La oferta de EPA-HH de Hernani siempre ha sido muy amplia: desde las personas que no saben leer ni escribir, hasta las que siguen estudiando a pesar de tener la titulación básica. También hay opción al horario, desde las nueve de la mañana hasta las nueve de la noche. La oferta de los cursos se hace en base a las necesidades que detecta el profesorado, pero la creación de los grupos está a merced de lo que pide la gente, por lo que la organización del curso resulta bastante compleja. Además, hay dos períodos de matriculación, en febrero y en septiembre.

Es posible la mejora de este servicio público. La labor y el objetivo de sus responsables tiene que ser y será conseguirla: ofrecer una educación básica integral para desarrollar las aptitudes y potencialidades de cada persona, para que, sobre todo, entre toda la información que nos desborda hoy día, pueda buscar lo que desea, pueda entenderlo y tenga autonomía para entenderlo.